

# ek!

eta kitto!  
euskara elkartea

2023ko martxoak 17 · 1263 zenbakia



## EUSKARA ELIKATUZ SUSTRAIETATIK ADARRETARA



**URRATEGI**  
INTERIORISMO  
barne diseinua

[www.urrategiinteriorismo.com](http://www.urrategiinteriorismo.com)  
Arragueta 27 Eibar Arretxe 9 Azpeitia



# osasun gida

## Dentistak

**Odontologia  
Biologikoa**

**Miren Albistegi Sojo**

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52  
malbistegi@gmail.com

arat.  
ARAT KLINIKA CLINICA DENTAL



**ZURE  
IRRIBARRE  
ONENA**

Toribio Etxebarria Kalea, 4  
20600 Eibar  
943 201 651  
www.aratclinica.com



**EIBAR** HORTZ KLINIKA  
CLINICA DENTAL

**Maitane G. Iñiguez**  
Odontologian Lizenziatua  
671 516

San Agustín Kalea, 4 beheko ezkerria  
20600 Eibar (Diputakoa)  
943 537 076 - 688 884 808  
info@eibarclinicadental.com



**P. Echeverria  
A. Esnaola**

Hortz klinika Clinica dental  
Fermín Calbetón 19-3 433. EIBAR  
943 20 72 17 - 688 422 808  
@pgeferri



**GASTESI  
Hortz-Klinika**

Errebal, 9-1.C  
943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI  
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia



**IRAZABAL**  
clinica dental

**Irribarreetan adituak**  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnos. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO  
ZURIARRAIN ODONTOLOGOEA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

**Bidebarrieta, 7-1 esk. 843-702886**



**Unzaga Plaza**  
Hortz Klinika - Clinica Dental

**M. Orozco Ventura doktorea**  
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar  
Tel.: 943 70 23 85

## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**  
5º Kalegata 10.a

- INDIATERAPIA
- KIBO, LEONDA
- Puntzio eta TEFERONDA
- Kinesiofito + IMPULSIONA

**FISIOTERAPIA  
ZENTRUA**

**ARRAQUETA, 20**  
Tfn: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

## Ginekologia

**Dra. Laura  
Martinez**  **Dr. Alejandro  
Recas**

**GINECOLOGÍA  
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D  
dr.recas@gmail.com  
dra.martinezgallardo@gmail.com  
www.ginecologiaeibar.com



**943-206776**

# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Euskararen transmisioarekin eta sozializazioarekin lotutako gaiak jorratzeko bilgunea izaten da Mintegia eta aurten ere euskara hainbat ikuspegitik landu da: euskalgintza, herrigintza, kirola, kultura, aisialdia, teknologiak...



#### ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Eskutitzak



### Errigoraren bi otar zozketatzen ditugu

Nafarroa hegoalde eta erdialdeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta, lekaleak, fruitu lehorrak eta bestelako produktuak dituzten Errigora proiektuaren bi otar zozketatuko ditugu. Parte hartzeko [www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) webgunera jo edo sartu QR-aren bitartez. Epea martxoaren 22an amaituko da, 18:00etan.

Zozketan parte hartzeko bete beharreko formularioa



Bestalde, udaberriko kanpainako eskaerak martxoaren 29ra arte egin daitezke errigora.eus webgunearen bidez, eta erositakoaren banaketa Eibarren bertan izango da, maiatzaren 10ean (eguzatena) Untzaga Zinean.

**Erredakzioa**

## Astean esanak



Kanpoan ibiltzen diren oiloek ingurugiroari kalte handiagoa eragiten diete barruan daudenek baino. Eurentzat hobe izango da, hainbesterako ez bada izango ere, azken batean fabriketan daudelako. Baina euren kakak askeago iristen dira ibaietara eta lur handiagoa hartzen dute. Badiara, gainera, abeltzainak ideia guztiz katastrofikoekin datozenak: oiloak guztiz landakoak izateko, behiekin batera ateratzearen aldekoak. Baina oiloek denetarik jaten dute: igel-kumeak jaten dituzte, tximeleta-kapuiluak eta era guztietako intsektuak. Modu horretan, behiek egiten duten kaltea biderkatzen dute oiloek. Abeletxe alaiena ipuinetako kontua da, horko bizitza beldurgarria delako. Zer esanik ez arazo politikoei dagokienez: herrietan hauteskundeak dira, landan ez dago halakorik. Hor indar aurredemokratikoei agintzen dute.

**GEORGE MONBIOT, saiakera-idazlea**

EAEn saltzen den arrain gehiena Pasaiaiko, Getariako eta Ondarroako portuetatik mugitzen da. Baina horrekin ez da aski, batez ere gehien kontsumitzen diren espezieen kasuan: legatza eta bakailoa. Lehenengoa Frantziatik ekarzten dute bereziki, zapoa, oilarra eta beste batzuekin batera. Bakailoa eta izokina Norvegia, Danimarka eta Herbehereetatik iristen da. Eta Afrikatik ere ekarzten dute arraina: Senegalgo eta Namibiako legatza, bereziki.

**MERKAOIARTZUNgo arduradunak**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**ONDORIAN** → Ondoren, jarraian. “Hasi zan arbolari bueltaka lehoi erraldoia ondorian ebara”.

**ONDOTXO** → Ondo baino hobeto, oso ondo. Askotan zentzu ironikoan erabiltzen da. “Hemengo gauzok ondotox jakitzera helduko haiz, da kontaigun kontau Eibarko barri”.



Idurre Iriondo

## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 17</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>ZAPATUA 18</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>DOMEKA 19</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>ASTELEHENA 20</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>MARTITZENA 21</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>EGUAZTENA 22</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUENA 23</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>BARIXAKUA 24</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>GAUEZ BETI</b> , 2023an, <b>Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familia)	699 37 75 20

## Hildakoak

- **Nerea Ajuria Otxandiano**. 65 urte. 2023-03-08.
- **Angel Lopez Saceda**. 75 urte. 2023-03-09.
- **Esther Agirre Mujika**. 72 urte. 2023-03-09.
- **Izaskun Aranzabal Egizabal**. 70 urte. 2023-03-10.
- **Emilia Gonzalez Ramos**. 2023-03-11.
- **Conchi Baskaran Otaño**. 89 urte. 2023-03-11.
- **Simon Osa Alberdi**. 92 urte. 2023-03-12.
- **Dolores Olabe Aristorena**. 92 urte. 2023-03-13.
- **Manuel Nieto Fidalgo**. 90 urte. 2023-03-13.
- **Mario Nuñez Martinez**. 84 urte. 2023-03-14.

## Jaiotakoak

- **Mia Castro Pinedo**. 2023-03-04.



## PSE-EEK “Eibarrekin konprometitutako talde berri eta plurala” aurkeztuko du

Errebal Plazan egindako ekitaldian aurkeztu zituen aurreko astean Eibarko PSE-EEK maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako bere hautagaiak. Zerrendaburu eta alkategaia den Jon Iraolarekin batera, 26 eta 78 urte bitarteko 11 gizon eta 10 emakume osatzen dute “Eibarrekin konprometitutako talde berri eta plurala, gure hirian berdintasuna, bizikidetzeta eta ekintzailetzeta bezalako balioak babesteko bermea izango dena”. Nabarmendu zuten, PSE-EE-

ren zerrenda berri egin da: 21 hautagaietako zazpi estreineko aurkeztuko dira hauteskunde batzuetara, eta horietako hiru, gainera, zerrendako goiko tokietan daude (bigarren, hirugarren eta laugarren postuetan). Eta, bestetik, bost independente sartu dira. Diotenez, “hori sintoma ona da, eta erakusten du Eibarko PSE-EEK hiri sendo eta ilusionagarriaren proiektua duela, eibartarrak erakartzeko gai dena, nahiz eta gure alderdiko militanteak ez izan”.

## Osasun publikoaren aldeko mobilizazioa deitu dute egunerako, anbulatorio parean

Eibarko Pentsionistak, Eibarko Ernai, Matraka Neska\* Gazte Taldea eta Nalua Eibarko Feministak atzo agerraldia egin zuten, beste toki batzuetan bezala, Eibarren ere osasun publikoaren aldeko mobilizazioa deitzeko. Esandakoari jarraituz, “Osakidetzak eskaintzen duen zerbitzu publikoaren kalitatea herritarron kezka nagusienera irazten da. Pandemiaren garaian

etorri ziren hainbat aldaketa eta murritzeta gelditzera etorri dira. Lehen presentzialak ziren kontsulta asko gaur egun telefonoz egiten dira, eta mediku espezialistekin zita lortzea oztopoz beteriko bidea bilakatu da”. Horren aurrean, herritarrak mobilizatzen deitu nahi dituzte, martxoaren 23an, 18:00etan, Toribio Etxebarriako anbulatorio aurrean.



## Lore, Landare eta Zuhaitz azoka egingo da bihar goizean Urkizuko parkean

Udalak eta Dekolorek Lore, Landare eta Zuhaitzen Azokaren edizio berri bat antolatu dute bihar. Urkizuko parkean egingo da, 10:00etatik 14:30era, eta hamahiru ekoizle hartuko dute parte. Azokaren 13. edizioa izango da aurtengoa eta mota guztietako landare eta lore naturalak ikusi eta erosi ahal izango dira: fruta-arbolak, arrosa-landareak, zuhaixkak, barruko landareak, sasoikoak, usaintsuak, baratze-landarak, kaktusak eta beste batzuk. Gainera, erabilerari tradizionaleko eta sukaldaritzako haziak eta belarrak ere egongo dira, kosmetika naturaleko artisauro produktuak, eta artisautza, hala nola lore prentsatuarekin egindako koadroak, lore-motiboak dituzten bitxiak, edo lore lehorrez edo eukalipto egindako bitxiak.

### Umeentzako tailerrak

Azokak, bestalde, landareen zaintzari eta erabilerari buruzko informazioa zabaltzea du helburu eta, horretarako, goizean umeentzako bi tailer egingo dira. 11:30etik 12:30era bitartean prentsaturako loreen tailer bat egingo da; eta 12:30etik 13:30era landatzen ikasleentzako tailer bat.



## Astlehenean hasiko dira Zaporeak erronkarako dilistak batzen

Zaporeak erronkak bosgarren urtea beteko du eta aurreko eskualdeko herri guztietara zabaldu dute. Aurrekoetan bezala, lekaleak, pasta eta arroza bilduko dituzte Debarreneko herri guztietan, astelehen honetan hasi eta eguenera bitartean (martxoaren 20tik 24ra), Grezian dauden errefuxiatuei jaten emateko. Eibarren dilista pardina bilduko da; Elgoibarren, garbatzu pedrosillanoa; Ermuan, Deban eta Soraluzen, arroz luzea; Mallabian eta Mendaron, hodi erako makarroia; eta Mutrikun, arraina

kontserban. Ohiko bilketa-puntuetan jasoko dute janaria oraingoan ere. Kanpaina ixteko ekitaldia, bestalde, Ermuan izango da aurrekoan, martxoaren 25ean, zapatua, 14:00etatik 15:00era Ermuko Orbe Kardinalaren Plazan. Bertan tupper solidarioak (erdia lentejak bakailoarekin, beste erdia arroza Lumagorrirekin eta fruta pieza bat) salduko dira, 5 eurotan. Eta janaria bidaltzeko gastuei aurre egiteko, rifak ipini dituzte salgai: euro baten truke afariak eta artelanak irabaz daitezke.



## "Eibar-Malvinas Argentinas" proiektuaren aldeko azoka Untzagan

Bihar azoka solidarioa egingo da Untzagan, Proyde-Proegaren eskutik, eta bertan egongo dira "Eibar-Malvinas Argentinas" proiektuan parte hartuko duten hiru gazte kooperanteak. Ander Curiel, Eva Perosanz eta Aitor Arrieta uda honetan Malvinas Argentinas herrian (Kordoba) dagoen eskola eta gazte-zentro batean arituko dira boluntario lanetan eta, proiektua finantzatzeko laguntzeko, rifak salduko dituzte, bihurtik hasita. Euro baten truke, hainbat kirol taldek eta kirolariek dohaintzan eman dako artikuluetako bat (25 baino gehiago) irabazteko aukera dago. Zozketa ekainaren 30ean egingo da. Proiektuari buruzko informazio guztia Twitterren (@eibarmalvinas) eta Facebooken (Proyecto Eibar-Malvinas Argentinas) dago eskuragarri.

## Hasi da Miss Grand Spain lehiaketako bost finalistak aukeratzeko bozketa

Hilaren 19tik 26ra Miss Grand Spain lehiaketa jokatu da Tenerifen eta han egongo da Lorea Urkia eibartarra, Miss Grand Euskadi. Dagoeneko hasi da bost finalistetako bat zein izango den erabakitzeko bozketa eta, Lorearen alde botua emateko, 905 88 05 13 telefonora deitu behar da.



## Tramite eta prozeduren gida kaleratu dute Eibarren bizi diren immigranteentzat

Eibarren bizi diren etorkinentzat izapide eta prozeduren gida editatu du Udaleko Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko Arloak. Gida euskaraz, gaztelaraz, arabiarrez eta ingelesez dago eta Gizartekintzan (Portalea eraikina, 4. solairua) eskuratu daiteke.



## Eibartik kanpora dauden interes politikoak albo batera laga eta hitzartutakoak betetzeko eskatu diote jeltzaleek alkateari

Udaleko Ogasun eta Lan Batzordea atzo goizean bildu eta jarraian, EAJ-PNVko udal taldeak prentsaurrekoa egin zuen, udal aurrekontuari buruzko azalpenak emateko. Josu Mendicute taldeko bozeramaleak esan zuenez, ohiko prozedurari jarraituz, udal talde bakoitzak aurrekontu zirriborroari egindako zuzenketa guztiak bozkatu ziren batzordean, eta Eibarko EAJ-PNVk PSE-EE eta EH Bilduren arteko akordioaren aldeko botoa eman zuen. Azaldutakoari

jarraituta, “guk aurkeztutako zuzenketa gehienak atzera bota ditugu, PSE-EEekin batera adostu eta oraindik bete barik jarraitzen dutenak izan ezik. Are gehiago, sozialistek gurekin adostutako proposamenen kontrako botoa eman dute birritan, hitzemandakoa albo batera lagata”. Udal aurrekontua onartzeko plenoa eguzten goizean izango da. PSE-EEri “Eibartik kanpora dauden interes politikoak alde batera lagatzea eta emandako hitza betetzea” eskatu diote.

## Artean-Ix ikasgune feminista aurkeztuko dute eguenean Portalean

Entreamigos- Lagun Arteanetik, Guatemalako, Euskal Herriko eta munduko beste toki batzuetako askotariko emakumeen komunitate feministak bultzatzen dihardute. Eibarren, 2020az geroztik ari dira hainbat talderekin elkarlanean eta 2023-2024. urteetan, Artean- Ix Ikasgune Politikoak sortu nahi dute, “askotariko emakumeen artean bidea egin, ikasi, baliabide eta tresnak landu eta eskuratzeko gune bat osatzeko helburuarekin”. Aurkezpena datorren eguenean, martxoak 23, egingo dute, 18:00etatik 20:00etara Portalean.



## Arantza Mata izango da EH Bilduren alkategaia udal hauteskundeetarako

Eibarko EH Bilduren mahai politikoak Arantza Mata Egituren aurkeztuko du udal hauteskundeetan alderdiaren alkategaia izateko. Bilduren oinarri eta bilkideek proposamena onartuz gero, martxoaren 21ean egingo dute ofizial. Arantza Mata (Eibar, 1974) beti egon da oso lotuta kirolaren munduarekin eta Jarduera Fisikoko eta Kiroletako Zientzien Lizentziaturan eta Magis-

teritzan egin zituen ikasketak. Hezkuntza munduan egin izan du lan eta ikasketa burua eta zuzendaria izan da Plaentxi HLHI-n, Sarean-eko eta HEIZE-ko kide eta Soraluzeko Hezkuntza Proiektuaren sustatzaileetako bat izateaz gain. Kirolari bezala, 16 urtez foballean egin zuen Oiartzun, Urki, Eibartarrak eta Eibar KE taldeetan. Bere ibilbidean zehar hainbat sari eskuratu zituen.





## “Barreterapia familiar” tailerrerako izen- ematea zabalik dago

Joan den barixakuaz geroztik eman daiteke izena “Barreterapia familiar” izeneko tailerrean. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatu duen saioa Manex Beristain barreterapeutak emango du eta 6 eta 12 urte bitarteko gaztetzoei eta haien gurasoei zuzenduta egongo da. Martxoaren 25ean, zapatua, izango da 10:30etik 12:30era ...eta kitto!-ren bulegoan (Urkizu 11 solairuartea). Izena emateko telefonoz deitu (943200918) edo mezua bidali daiteke (elkartea@etakitto.eus). 5 euro balio du helduentzat eta 3 euroumeentzat (doan ...eta kitto!ko bazkide eta guraso berbalagunentzat).

## Hurrengo astean egingo du ...eta kitto!-k urteko batzarra

Martxoaren 21ean, martitzena, egingo du Euskara Elkarteak urteko batzar nagusia elkartearen egoitzan (Urkizu 11, solairuartea). Lehenengo deialdia 19:00etan izango da; bazkideen erdia baino gutxiago bertaraten bada, ordu erdi geroago egingo da Batzarra, hau da, 19:30ean. Bazkide guztiak parte hartzera gonbidatuta daude.

## Balmasedan izan dira berbalagunak asteburuan fabrika-museoa ikusten

Bertako La Encartada fabrika-museoa bisitatu zuen zapatuan Eibarko hogeita bost berbalagunetz osatutako talde ederrak. Cadagua ibaiaren ertzean 1892an sortu eta ehun urtez, 1992ra arte, ehungintzara dedikatuz lantegiak industria ondare baliotsua laga digu. Artilezko gaiak egiten zituzten, txapelak gehienbat, baina baita mantak, galtzerdiak edota eskularruak ere. Arkitektura

aberatsaz gain, makineria balioetsua gordetzen du lantegiak. XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako turbina hidraulikoak eta uhal eta polea sistema konplexuak ikus daitezke bertan. 2007. urtean museo bihurtu zuten fabrika, ehungintzaren ondare historikoa gordetzeko asmoarekin. Museoa ikusteaz gain, txapelak erosteko ere baliatu zuten berbalagunek bisita eta, txapelaburuan, Balmasedako txokorik interesgarrietan barrena ibili ziren bazkaltzera joan aurretik, Balmasedak badu-eta zer ikusi. Sei talde ezberdinetako berbalagunak elkartu ziren zapatuko irteeran. “Elkar ezagutzeko aukera polita da, eta euren euskarazko harreman-sarea zabaltzeko ere bai”, diote ...eta kitto!-tik, “Berbetan programaren helburuetako bat hori ere bada-eta, berbalagunei euskaraz hitz egiteko aukerak ematea eta handitzea”. Berbalagunen hurrengo zita Donostian izango da, maiatza amaieran, bertan egingo baita Euskal Herri osoko berbalagunek elkartzen dituen Mintza Eguna.



# “Hizkuntzak errealitate birtualaren bidez ikasteak onura asko ditu”

ALINA IVAN • Ingeleseko irakaslea Armeria Eskolan



Alina Ivan Armeria Eskolako ingeleseko irakaslea eta nazioarteko proiektuen koordinatzailea da. 2020tik VirTrain nazioarteko proiektuan ibili da lanean. Erasmus+ programak finantzatutako VirTrain proiektuak Lanbide Heziketako hizkuntza-irakasleak errealitate birtualaren bidezko irakaskuntzan trebatzea du helburu. Lanbide Heziketan ez da ohikoa hizkuntzarekin lotutako proiektu berritzaileak lantzea. Beraz, Alina oso pozik dago parte hartzeko aukera izan duelako eta Armeria Eskolan dagoeneko ingeleseko klaseak errealitate birtualaren bidez ematen ari direlako.

Informazio gehiago eskuratzeko



## Zelan sartu zen Armeria Eskola nazioarte mailako VirTrain proiektuan? Eta zertan datza?

Errealitate birtualaren bidez hizkuntzak lantzeko formakuntza jasotzeko proposamena Tknikatik etorri zen. Lanbide Heziketan hizkuntza, eta atzerriko hizkuntzak batez ere, ez dira oso gustukoak izaten ikasleen artean. Oso garrantzitsua da euren motibaziorako edozein trikimailu edo tresna erabiltzea. Hortaz, parte hartzera animatu nintzen. Lanbide Heziketan hizkuntzak irakasteko eta ikasteko gaitasuna areagotzea da VirTrain-en helburua, horretarako errealitate birtuala erabiliz.

## Beraz, berritasuna da errealitate birtuala lehen aldiz erabiltzen dela Lanbide Heziketaren baitan hizkuntzen arloa lantzeko.

Badira urte batzuk errealitate birtuala erabiltzen hasi dela Lanbide Heziketan, adibidez industria-lanetarako simulagailuak edo medikuntzako aparatuen erabilera ikasteko simulagailuak. Besteak beste, anbulantzia bat eta barruan dituen gauza guztiak simulatu daitezke errealitate birtualaren bidez. Oso baliagarria dela ikusi dute. Kontua da hori nola trasladatu hizkuntzetara. Proiektu hau Txekiako erakunde batek zuzendu du. Elkarte horretako kide batek, hizkuntzetan aditua, harremana zeukan Estatu Batuetako enpresa batekin. Enpresa horrek oso aplikazio ona sortu du ingelesa

irakasteko. Eta guk zortea izan dugu probatu ahal izan dugulako.

## Zer eskaintzen du aplikazioak?

Irakasleak bere unitate didaktikoa sortu dezake. Aplikazio horretan irakasleok hainbat elementu ditugu nahi dugun moduan moldatzeko eta nahi dugun gaia lantzeko. Logikoa denez, lan munduarekin lotutako gaiak lantzen ditugu. Adibidez, nik aurkezpenak landu ditut. Erronketan eta proiektuetan oinarritutako Ethazi metodologia erabiltzen dugu Armeria Eskolan. Ikasleek taldeka egiten dituzte erronkak, eta prozesu amaieran proiektua aurkezten dute. Hor sartzen da komunikazioa eta hizkuntza, ingelesa kasu honetan. Pentsatu nuen proiektuen aurkezpena errealitate birtualaren bidez egitea ariketa ezinhobea zela. Gai hori iaz erabili nuen eta aurten lan-elkarrizketa lantzen ari gara, eta horrekin batera curriculuma eta aurkezpen-gutunak prestatzen ditugu. Horretarako betaurrekoak jantzi, mandoak hartu eta gela birtual batean sartzen gara. Ikasleak isolatzen dira eta ondokoa avatar bezala ikusten dute. Modu horretan hobeto zentratzen dira, ez dira hainbeste despistatzen. Gehienbat ahozkoa lantzeko erabiltzen dugu eta aplikazioak gamifikazioa erabiltzen du, hau da, jokoa eramaten du ohikoa ez den esparru batera. Adibidez, arku batekin gezi bat botatzen duzu eta *pop up* edo leihatila bat agertzen



da galdera batekin. Joko bat ematen du, oso ludikoa da, eta ikusten dut ikasleak oso motibatuta daudela.

**Nolako izan da proiektua lantzen urte hauetan bizi izan duzun esperientzia?**

Paregabea, zalantza barik. Proba pilotoa izan da Txekia, Italia eta gure artean. Lehenengo gu formatu behar izan gara eta ikusi dugun lehenengo gauza izan da behar handia dagoela gu irakasleok formatzeko. Ni ez naiz bideojokozalea, eta ez naiz gauza hauetan trebea, baina ikusten dut horrelako gauzetarako oso baliogarria dela. Aplikazioa erabiltzeko lizentzia oso garestia da, eta horregatik ez da erraza izango hemendik gutxira Lanbide Heziketako eskola guztietan ikustea. Gu proiektuan lanean egon garenez, gure ikastetxean erabiltzeko pribilegioa edo abantaila izan dugu, eta jarraituko dugu erabiltzen.

**Hezkuntza munduan errealitate birtualak dituen aukerak ezagutu ondoren, aldatu egin da, beraz, zure ikuspegia.**

Aurrera egiteko, berritzaileak izateko eta gaur egungo ikasleei erakusteko arlo horietan sartu behar gara eta ikasi egin behar dugu. Bestela, atzean geratzeko arriskua dago. Aldaketak oso azkar ematen dira eta datorren urtetik aurrera bi gela birtual izango ditugu ikastetxean. Oso ondo etorri zait proiektu honek egotea eta oso harro nago hizkuntzak lantzeko aukera izan dudalako, ez delako batere ohikoa Lan-

**"Joko bat ematen du, oso ludikoa da, eta ikusten dut ikasleak oso motibatuta daudela"**

bide Heziketan hizkuntzarekin lotutako proiekturik lantzea. Normalean proiektu teknologikoak izaten dira. Esan bezala, proposamena Tknikatik etorri zen. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Lanbide Heziketako Sailburuordetzak bultzatutako zentroa da Tknika. Gu izan gara proiektu osoa landu dugunak, baina formakuntza EAeko bost irakaslek jaso genuen. Lehenik eta behin teknologia ikasi behar izan genuen, betaurrekoak, mandoak, nola konfiguratu... Ez da erraza gai bat errealitate birtualaren bidez irakasteko zer egin behar den erabakitzea. Erremintak hor daude, baina irakasleok erabaki behar dugu nola erabili aukera horiek. Zure erosotasun egoeratik atera behar zara eta beste modu batean pentsatu. Hori oso aberasgarria da. Erasmus+ programak finantzatutako proiektua izan da eta gurekin batera Txekiar Errepublikako Goi-mailako Lanbide Heziketako Elkarte (CASPHÉ), Txekiar Errepublikako MTI zentroa, hizkuntzen irakaskuntzan aditua; eta Italiako Trento eskualdeko Hezkuntza Saila izan dira.



TOMAS VOUILLOZ

## Funtsean, bide laburra da

Noizean behin etxera itzultzeko bide luzea hartzen duzu. Zergatik ote. Kale guztiak dituzu soberan ezagunak. Zaborra bakarrik aldatzen da tokiz. Euriarekin, putzuak. Kitto. Aurpegiak ere berdinak izan ohi dira. Garik dio errutinaren morroiak bihurtu garela.

Gari polikiroldegira bidean dago, edo entsegura bidean, edo partikularrera, edo [bete hutsunea], gogoeta hauetan murgilduta dagoelarik. Dagoeneko, ez da oso gai egun eskasak beste egunetatik bereizteko.

Halako batean, plast! Hiruzpalau tanta ilun hasten dira behetik gora. Begiekin jarraitzen ditu. Hankaz gora dagoen mundu bateko euri beltza dirudi. Une batez eten egiten dira tantak, airean flotatzen. Hain arinak dira, loturarik gabe. Baina azkar bukatzen da lilura. Grabitateak mundu hau bere lekura itzultzen du, eta putzuaren tantak, putzura. Gehiengoak, ordea, Gariren kontra jo du eta galtza bakeroetako telak azkar xurgatzen ditu arrasto laiotz bat utziz. Galtzerdia hasi da ura xurgatzen. Garik bere oina irudikatzen du zingira sorgindu batean hondoratuta.

Kalean gora doala, muturluze, benetan sorginduta dagoen galdetzen dio bere buruari. Izan ere, gutxienez astean behin zapaltzen du baldosa-putzu faltsua, alde zurretik non dagoen jakinda ere! Every day things are getting worse.

Honaino, zu, Gariren pareko. Errutina maitia: aska gaitezten lehen baino lehen. Gariri hor konpon. Baina zuk, igerian zaudela, korrikan, yogan, klasean edo [bete hutsunea], ezin duzu ihes egin. Ardura gehiegi dituzu. Txapelketa, partidua, liga, ikasketak, lana, gurasoak, bikotea, seme-alabak, diru gutxi, denbora gutxi, opor gutxi, afaria zain, norbait zain, afaria egiteke, zain egongo den norbait bilatzeke, eta abar luzea eta bizitza laburra.

Haserrea igotzen zaizu. Putzu ziztrin hori datorkizu burura eta gainean salto egiten irudikatzen zara behin eta berriro. Mundua hankaz gora. Ur jauzi beltz bat behetik gora. Hondamendia. Hau betazaletatik barrura. Kanpotik, ordea, motxila ixten, lasai. Arratsalde on, zer moduz, zenbat denbora (atzo). Hotel Unzagako harreragilearen aurpegiarekin, hain goxo.

Norbaitetik ordaindu behar du. Zoaz ba, etxera, bide luzetik. Galtzadarri ergel horrek gaur ez zaitu ikusiko.

**“Hiruzpalau tanta ilun hasten dira behetik gora. Begiekin jarraitzen ditu. Hankaz gora dagoen mundu bateko euri beltza dirudi”**



**III. GIPUZKOAKO  
NATURA ETA INGURUMENEN  
ZINEMA ERAKUSTALDIA**

GIPUZKOA INGURUMENA



**ZINE-PROIEKZIOA**  
martxoak 24 / 19:00 / Coliseo

**“El leopardo de las nieves”** (GATTELERA)

Informazioa: [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)

**- SARRERAK DOAN (plaza mugatuak) -**

 Aurretik eskatu daitezke Gipuzkoa Ingurumenaren webgunean:  
[www.gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/zinema](http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/zinema)

**SARRERAK**

Era berean, hartu daitezke:  
- Coliseo antzokiko leihtailan astelehen eta ostiraletan (17:30/19:30)

EGOITZA LAGUNTZAILEA









**ATE IREKIAK**

**MARTXOAK 29**  
Asteazkena, 17:30

*Zatoz ate irekietara!*





ArmeriaEskola<sup>®</sup>

**2023 MARTXOAK 25**



**Itzali argia,  
Eman buelta bat  
Planetari.**



**20:30 – 21:30**

**60**  
LA HORA de la Tierra



**Egizu bat PLANETAREN ORDUAREKIN!**

Eibarko Udalak “Planetaren Ordua” ekimenarekin bat eginez ORDUBETE ITZALIKO DITU Untzaga plazako eta Udaletxearen erlojuko argiak.

Gehitu kilometroak [horadelplaneta.wwf.es](http://horadelplaneta.wwf.es) orrialdean



# “Startupen kultura hedatu nahi dugu eta formakuntza berebizikoa da horretarako”

IDOIA ITURBE • Coben group



BPTD-k 'Inbertitu startupetan zure negozioa handitzeko' izeneko ikastaroa emango du hilaren 22an, 09:00etatik 11:00etara, Debegesan, Unai Carmona eta Idoia Iturberen eskutik. Esteka honen bitartez eman daiteke izena: <http://shorturl.at/cdgBJ>

**I**doia Iturbe eibartarrak urteak daramatza nazioarte mailako negozioak garatzen, ekiten eta startup digitaletan inbertitzen. Orain dela gutxi *El Referente* hedabideak Espainiako 100 emakume inbertsoreen zerrendan sartu du eta Unai Carmo- narekin sortu zuen Coben Groupen dihardu lanean, besteak beste.

## Zer da startup digital bat?

Normalean, merkatuko sektore edo prozesu batean disrupzioa eman behar delako sortzen dira startupak. Beste ezaugarri bat da startup digitaletan eskalabilitate handia dutela. Hau da, teknologia erabiliz, negozioaren tamaina handitzeko gaitasuna. Hasieran inbertsio handia egin behar da teknologian, baina momentu bat heltzen da eskaintza handitzen doala zuek inbertsio gehiago egin beharrik izan gabe.

## Inbertsioari dagokionez, nolako bizitza dute startuppek?

Startuppek inbertsio-fase asko dituzte eta, normalean, fondoko lasterketak egin behar izaten dituzte. Hasieran inbertsio handiak egin behar dira eta salmentek ez die inbertsio horiei eusten. Lehenengo bi-hiru urteetan balantzea negatiboa izango da (gorrian egongo dira). Beraz, hazten jarraitu behar duzu (teknologia garatzen

ez bada, merkatuak ez duzulako), baina nola? Inbertsioak sartuz joko horretan.

## Zenbateko inbertsioa behar izaten dute startuppek?

Aipatutako balantze negatibo horrek startupen beharra zehazten du eta hori da finantzatzeko joaten direna. Normalean, finantzazioa hurrengo 12-18 hilabeteetara begira egiten da. Beraz, gorrian zenbat egongo zaren ikusi behar duzu eta, horren arabera, inbertsio-erron- dak altxatzen joan. Hasieran, hiru F-ek inbertitzen dute (family, friends & fools, hau da, familia, lagunak eta inozoak) eta business angels-ak sartzen dira (inbertitzaile aingeruak). Gu geu, Coben-en, business angels bezala ibili gara eta ikusi dugu Euskal Herri mailan ez dagoela horrelako kulturarik. Badago inbertsore kultura indartsua produktuak ukigarriak diren kasuetan, baina business angel digitalak oso gutxi. Kultura hori hedatu nahi dugu eta horretarako formakuntza berebizikoa da.

## Euskal Herrian baldintza egokiak ematen dira startupak sortzeko eta garatzeko?

Oso baldintza onak. Ekintzaile asko dago, baina Valentzia edo Madrilekin alderatuz, adibidez, askoz ere gutxiago softwareen munduan. Inbertsioen aldetik, ostera, onura fiskal asko dago EAEn. Ikusten da legeak

Ikastaroan  
izena emateko



eta arauak aldatzen ari direla inbertsio gehiago egoteko, baina legeak egokitu arren, ez badakizu business angel bat izan zaitzkeela eta hori izatea ere zer den, zaila da mundu horretan sartzea.

### **Zer behar da business angel bat izateko?**

Ez duzu demaseko kapitala behar. Startupek 150.000 euro inguruko beharra izaten dute lehenengo errondan eta batzuren artean batzen da dirua (10.000-20.000 eurotik aurrera inbertsioak egin ditzakezu, eta badaude plataformak 500 euroko inbertsioak egiteko). Dibertsifikazioa da gakoa. Estatistikek diote hamar startupetik bakarrak biderkatzen duela hamar aldiz bere balorazioa. Beraz, helburua izan beharko litzateke bost urteko tartean behintzat hamar proiektutan inbertitzea. Guk hasierako fase horretan sartzeko aukerak eman nahi ditugu eta, era berean, komunitatea sortzea eta proiektuak partekatzea.

### **Inbertsoreekin bakarrik egiten duzue lan ala baita ekintzaileekin ere?**

Biekin egiten dugu lan, fasearen arabera. Batzuetan, salmentarik ere ez duten enpresetan sartzen gara. Inbertsore xerpak garelako esaten dugu, asko laguntzen diegulako fase kritiko horietan. Normalean, profil teknologikoa duen jendea izaten da eta ahulago daude negozio-ereduari dagokionean.

### **Euskal Herrian startupen inguruko kultura falta dela diozu. Era berean, horrek erakutsi dezake aukera asko dagoela, bide asko dagoelako egiteko, ezta?**

Aurrean ozeano urdin bat dugula diogu, nitxo bat, baina lan asko egin behar dugu oraindik mundu hori gerturatzeko. Ez da Euskal Herrian dirurik ez dagoelako, pila bat dago, baina batzuetan startupetan ez da oso modu onean inbertitzen eta proiektuak hil egiten dira, sektoreari fama txarra emanez (besteak beste). Horregatik da hain garrantzitsua inbertsoreek ere formakuntza edukitzea.

### **Startupekin asko arriskutzen dela, atzean ezer ez dagoela eta horrelakoak esaten dira.**

Guk eskarmentua dugu mundu horretan eta badakigu nola jokatu behar den. Jakin egin behar da eta beti ez



## **“Euskal Herrian oso baldintza onak ematen dira startupentzat”**

da irabazten; baina, galtzen bada ere, ez dago zertan gehiegi galdu, denborarekin konturatzen zarela galduko duzula, eta esperientzia guztietatik ikasten da zerbait. Hemendik kanpo asko baloratzen da porrot egiten dutenen figura. Pentsa, inbertsore batzuek aurretik porrot egin duten pertsonengan bakarrik inbertitzen dute. Porrota ikasteko era bat da. Batzuetan saiatu egin behar zara, arriskatu eta, agian, ez da ondo irtengo, baina ez da ezer pasatzen. Lotsa gabe porrota onartu eta aurrera egin behar duzu. Kultura hori falta da hemen.

### **Debegesako hitzaldian hortik joko duzue?**

Startupez asko hitz egiten da, baina gero ez da ezer egiten. Batzuei bidea euren kabuz egiteko esaten diete eta ez da gomendagarria, hobe da bidelagunak edukitzea. Beraz, mundu hau aurkeztuko dugu eta interesa dutenei inbertsio aukerak azalduko dizkiegu.

XABIER ULAZIA • Musika taldeen managerra eta soinu-teknikaria

# “Soinuarekin zerikusia duen guztiaz arduratzen da ‘13 soinu’”

Xabier Ulaziak musika du pasio eta bere ibilbidean beste proiektu berri bat abiatu du: 13 soinu. Hainbat hanka ditu egitasmoak: soinu-ekipoen muntaia, instalazioa eta alokairua; zuzeneko soinu-teknikari lana; musika taldeen eta bakarlarrien managementa; eta ekitaldi kulturalen antolaketa. Harremanetarako: xabimetal@gmail.com edo 678 468 643.



Ulazia musika taldeen soinu-teknikari lanetan.

## Zertan datza ‘13 soinu’ proiektua?

Disko grabaketak kenduta, soinuarekin zerikusia duen edozein arlo batzen dituen proiektua da. Beraz, proiektuaren erabiltzaile potentzialak udalak, eragile kulturalak eta ekitaldietako antolatzaileak dira, besteak beste. Argi-hargunea emanez gero, ni arduratuko naiz ekipoaz, taldea ekartzearaz eta abar.

## Beraz, taldeak ere kudeatzen dituzu?

Hainbat talderen managementaz (kudeaketaz) arduratzen naiz eta eurentzat kontzertuak eta abar lortzen dihardut orain dela urte batzuetatik hona. Zortzi urte egin ditut Lekeition, ehun kontzertutik gora antolatuz. Beraz, jende asko ezagutu dut eta talde batzuren managementa eramateko aukera sortu zait: ‘Trai’, ‘Hilbera’, ‘Rojo cancionero’...

## Gauza bat da taldeak kudeatzea eta beste bat ikuskin antolatzea. Zergatik eman duzu jautzia?

Axular Arizmendi Mutrikuko soinu-teknikariak kontzertu ninduen. Zuzenekoetan ibiltzea nire pasioa bazen, aurrera egiteko esan zidan. Bestetik, ikusita pandemia eta gero ekimen kulturalekin sortu den gorakada, are eta animo gehiagorekin ekin diot. Izan ere, pandemiarekin arlo horretako jende bat beste sektore batzuetara pasatu zen eta eskaera asko dago orain. Ia hemen inguruan zerbait egiteko aukera sortzen den.

## Kostaldean gehiago mugitu zara, ezta?

Bai, eta eibartarra izanda Eibarko talde bat edukitzea nahiko nuke, adibidez. Eta gero, eskaintza kulturala aberastea da kontua. Izan ere, ekitaldiak antolatzeko orduan, Gatibu eta horrelako talde ezagunak ekartzen dituzu, daukan kostu ekonomikoarekin, edo bestela ezer, eta nik eskaini nahi dudana da diru gutxirekin zerbait txukuna antolatu ahal izatea.

## Musika egitea gero eta eskuragarriago dago, baina aukera berdinak daude taldeek zuzenekoak eskaini behar dituztenean?

Talde handien egoera ez da Euskal Herriko taldeen errealitatea. Euskal eszenan gaztetxe eta txosnagune asko dago, ekitaldiak egiteko beste aukera asko, eta hor ere soinu-teknikarien lana berebizikoa da.





Hitzaldi guztiak  
YouTuben ikusgai:



## Euskararen biziberritzearen erronkak eta praktikak hizpide

Aste honetan izan da ...eta kitto! Euskara Elkartek urtero antolatzen duen **Euskararen Transmisioa eta Sozializazioa Mintegia**. Ekitaldia martxoaren 15ean izan da, eguaztena, ohiko ordutegian: 09:00etatik 13:30era. Aurtengoa hamairugarren edizioa izan da eta Armeria Eskolan egin da bigarrenez, hori bai, oraingoan maskarillarik gabe. Euskararen transmisioarekin eta sozializazioarekin lotutako gaiak jorratzeko bilgunea izaten da Mintegia eta aurten ere euskara hainbat ikuspegitik landu da: euskalgintza, herrigintza, kirola, kultura, aisialdia, teknologiak... Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete bertara hurbildu zirenei zein streaming bidez parte hartu zutenei; eta Eibarren AKEBAI, Gipuzkoako Aldundia eta Eusko Jaurlaritzari ere bai, ematen duten babesagatik.



Ane Sarasua, UEUko idazkari nagusia

## “Euskal Unibertsitatea eraikitzeke bidea ez da amaitu”

UEU erreferentziatzeko erakundea da euskararen eta unibertsitatearen arloan. Ane Sarasua eibartarrak 25 urte daramatza UEUn lanean, denbora gehiena idazkari nagusi moduan. Une goxoa bizi izan dute 50. urteurrenarekin eta Mintegian ibilbide luze horri erreposoa emateko aprobetxatu du: Ipar Euskal Herrian ezarri ziren euskal unibertsitate bideko UEUren zimentarriak 1970. inguruan, eta Iruñeko Larraonan hasi zen bigarren aroa (urrezko aroa). Argitalpen-zerbitzua oso inportantea izan zen garai hartan, liburuak, aldizkari zientifikoak... Oinarrian goi-mailako euskarazko irakaskuntza bultzatzea zegoen, testu-liburuak euskaraz argitaratzea, bilgune izatea, sarea edo komunitatea egitea... eta gaur egun ere balio horiek indarrean jarraitzen dute.

Mende berriarekin Markeskua UEUren katedral txiki bihurtu zen. 2000. urtetik 2005era gaur egungo UEU denaren oinarri nagusiak jarri ziren egituraketari eta lantaldeari dagokienez eta udako ikastaroak antolatze-



tik urtean zehar gauzak antolatzea pasa ziren. Sasoi hartan ere eman zuten onlinerako saltoa.

2011n esparru-hitzarmena sinatu zuten EHUK eta UEUK kongresu zientifikoak antolatzeko, euskal komunitate zientifikoaren datu-baseak partekatzeke, euskarazko doktorego-tesien corpusa elkarrekin elikatzeke... Bestalde, graduondokoak sustatzen ere hasi zen. 2019an, zentro atxikitat onartu zuen EHUK UEUren Goimailako Online Institutua (GOI). Orain, inoiz baino gehiago, belaunaldi berriei begira daude. Euskal Unibertsitatea eraikitzeke bidea ez dela amaitu dio Anek, eta herri unibertsitatea dela azpimarratzen du: “Gizartearen premiei erantzutea izan da beti gure aldiarrikapena”.



“Atzeak ere erakutsiko digu aurrea nola dantzatu” izan da Idurre Eskisabel Euskalgintzako Kontseiluko idazkari nagusiaren hitzaldiaren izenburua. Belaunaldi berriak euskaldundu ahala horrek erabileran ispilu bat izango zuela pentsatu da garai batean, baina “gaur egun ikusi dugu hori ez dela aski, beste zerbait behar dela. Arrazoia behar dute, erreferenteak, mundu sinbolikoa, afektibitatea... Euskara bizirik badago izan da euskaltzaletasunak kontakizunak josten eta zoru diskurtsiboa sortzen asmatu duelako”, dio Idurrek.

Idurre Eskisabel, Kontseiluko idazkari nagusia

## “Euskara bizirik mantentzeko zoru diskurtsiboak eraiki behar ditugu”

XXII. mendera bizirik eramango gaituen kontakizunak sortu egin behar ditugu: “Ez dugu ahaztu behar gurea hizkuntza gutxitu bat dela botere-sare erraldoi batean kokatuta eta berez erabilera nekez etorriko dela, hautu bat izango dela. Eta horretarako motiboak behar dira, berdin da izan funtzionalak (behar duzulako lanerako edo egunerokoari aurre egiteko) edo balio sinboliko bat (emozioetan eta izaeran eragingo dizuna). Alde horretatik, hezkuntzari lotuta, oso interesgarria iruditzen zait Iratxe Retolozak-eta egiten duten irakurketa. Ikasleek, euskara jasotzeaz gain, zorua behar dute erabil dezaten. Zoru hori kultur eremuak emango die, erreferentzia batzuek, non zentzua hartzen duen hizkuntza hori aukeratzeak”. Feminismoaz ere mintzatu da Idurre. “Identitate kontu bat zena auzi unibertsala bihurtu da. Jendar-te osoari dagokion gauza bat da. Euskaltzaletasunak badu hor bide bat”.

**Eñaut Agirre, Garabideko koordinatzailea**

## “Gaur egungo umeentzat euskara beti egon da hor, errelato berriak behar ditugu eurentzat”

Garabide Elkarateak jaso zuen 2022ko Abadia saria Gipuzkoako Aldundiaren eskutik, **munduko hizkuntza gutxituen biziberritze-prozesuetan egiten duen lanagatik**. Munduan 6.000 hizkuntza baino gehiago daude, era eta tamaina askotakoak: "Hizkuntza handia izateak ez du esan nahi arriskuan egon ez daitekeenik, eta txikia izateak ez du esan nahi arriskuan egon behar denik. Baina mehatxua handia da, aurreikuspenak oso negatiboak dira, epe motzean hizkuntza asko galduko dira", dio Eñaut Agirre Garabideko koordinatzaileak.

Azken 50 edo 60 urteetan euskara biziberritzeko egindako lanari esker, gizarte honek galtzearen hizkuntza bat mantentzea lortu du eta, hutsuneak izan arren, prozesua berezia da munduan, "ez dago halako esperientziarik duen herrialde asko. Beste komunitate



askorentzat erreferenteak gara, hona begira daude". Garabidetik munduko beste komunitateei erakusten diete euskararen biziberritzean zer egin dugun, zein izan den gure esperientzia.

Guk errelatu bat, gogo bat, motibazio bat eta, neurri handi batean, gizartea aldatzeko gogoia izan dugu, baina zer gertatzen da belaunaldi berriekin? Beste errealitate bat ikusten dute. Euskara beti hor egon da, batzuetan derrigortutako gauza bat izan da. Errelato berriak behar dira eta inportantea da, gainera, jakitea munduan beste hizkuntza batzuk badaudela, ze egoeratan dauden...".



**PuntuEUSeko Lorea Arakistain eibartarrak eta Iametzako Asier Iturralde** Internet eta euskara izan dute hizpide. Loreak euskarak Interneten duen presentziaz hitz egin du eta Asierrek Mastodon sare sozialari buruzko argibideak eman ditu.

.eus domeinua gure euskal identitatearen alderdi digitala da eta euskararen erabilera sustatzen du. PuntuEus-en Euskal Herrian erregistratutako webguneetako euskararen presentzia aztertu dute: euskarazko edukia duten webguneen kopurua %14koa da. .eus domeinua erabiltzen duten webguneetan, berriz, %75eko presentzia du euskarak. Horren arabera, ".eus domeinuak hizkuntzari ikusgarritasuna eta baliagarritasuna emateko balio du. Erabiltzaileen hizkuntza ohiturak ere aztertu dira.

**Lorea Arakistain eta Asier Iturralde, PuntuEUS eta Iametzako koordinatzaileak**

## “Euskaldunok tresna digital propioak sortu behar ditugu”

mastodon.jalgi.eus eta mastodon.eus komunitateek jaso dute 2023ko Interneteko Argia saria. Mastodon deszentralizatutako sare soziala da, publizitaterik gabekoa, eta software librea defendatzen duten militantez osatuta dago. Beste sare sozial batzuk posible direla dio Asierrek: "Komertzialekin konparatuta, beste modu batean egiten dira gauzak eta horrek eragina dauka hizkuntzan. Twitterren baino testu gehiago idatzi daiteke gainera. Mastodon asko daude, deszentralizatu dago, ez da bakarra; batzuk erabilera orokorrekoak dira, baina badaude gaikakoak ere". Mastodon 2018an hasi zen zabaltzen eta apurka euskal instantzia bat sortzeko ideia zabaltzen joan zen. Helburua da sare sozialak izatea non euskara den nagusi. Euskaldunentzako arnagunea izatea. Erakundeek ere mastodon zerbitzariak sortu beharko lituzkete, burujabetza ariketa bat izango litzateke".

Ainhoa Zabarte eta Markel Sanchez, Berbaro

## “Badaude euskal komunitateari gauza berriak eskaintzeko aukerak”

Durangoko Berbaro Euskara Elkartetik "Nork lapurru du Irulegiko eskua?" jokoak sortu dute ([www.labur.eus/irulegieskua](http://www.labur.eus/irulegieskua)). Lagun artean edo familian jolasteko ihes-gela da eta ordenagailutik egiteko pentsatuta dago, mugikorretik funtzioak galtzen ditu-eta.

Parte-hartzaileek Irulegiko eskuaren arrastoak jarraitu eta hainbat proba egin beharko dituzte Euskal Herriko zenbait lekutan zehar, pistak lortu eta misterioa argitzeko.

“Bizi garen mundu globalizatu eta digitalean txikiak izateak zailtasunak ditu, baina badaude gure euskal komunitateari gauza berriak eskaintzeko aukerak. Oso joko sinplea da. Gabonen bueltan egin genuen. Erabili dugun programa Genially da eta oso erreminta sinpleak ditu. Asmoa zen euskaraz jolastea, euskaraz gozatzea eta Euskal Herria erakustea. Irulegikoa aitzakia besterik ez zen izan, denon ahotan zegoelako momentu hartan. Eibarren egingo bagenu, Eibarko gaiekin, horrek ere



arrakasta izango luke”, adierazi dute. Ez da Berbaro elkartean egiten duten lehenengo online ihes-gela. Konfinamenduko egunak arintzeko sare sozialen birtatez “Nork hil du Eneko Sagardoy?” jolasa proposatu zuten. “Gu moduko elkarte batek ez du normalean horrelako oihartzuna izaten sare sozialetan, baina ideiak arrakasta handia izan zuen”, diote.

“Non dago Plateruena?” izan zen hurrengoa.

Kasu guztietan istorioak beraiek sortu dituzte eta frogak ere eurek antolatuta dituzte. “Nahiko gauza sinpleak egin da sor daiteke joko bat, taldeka edo banaka jokatzeko.



Mikel Larrañaga, SD Eibar Fundazioko lehendakari ordeak **“Euskararen Baloien aurkikuntza SD Eibarren”** hitzaldia eskaini digu aurtengo Mintegian. Fundazioaren Euskara Batzordean euskararen ezagutza, erabilera eta gizartratzea sustatzen dute eta 2019an jarri zuten martxan Euskararen Baloia ekimena. Mikelek dioenez, “foball taldetik gizarteari itzuli nahi diogu gizarretik jasotzen duguna. Euskararen aldetik zerbait egin beharra zegoela ikusi genuen. Umeengana jo behar genuela pentsatu genuen. Eta umei bidali behar genien mezua oso argia zen: euskaraz egin behar da eta kitto”.

Mikel Larrañaga, SD Eibar Fundazioa

## “Foballa euskararen zerbitzura jarri nahi dugu”

Eibarko eskoletako umeek Ipuruara egiten duten bisitan “aldagelak ikusten dituzte, berdegunera joaten gara, prentsa-aretoa erakusten diegu eta jokalarik bi agertzen dira eta istorio bat kontatzen diete, euskararen baloien kondaira. Balo magikoa da eta, hortaz, euskaraz egiten dutenean baloia puztu eta alaitu egingo da, baina erdara egiten badute hustu eta ahuldu egingo da. Beraz, euren esku dago baloi hori osasuntsu egotea. Ikastetxe bakoitzari kamiseta bat ematen zaio eta gizonezkoen eta emakumezkoen partidetara gonbidatzen ditugu. Jokalariak gertutik ezagutzeko aukera dute (besarkatu egiten dituzte, foballak euskaraz bezala)”.

3D inprimagailu batekin baloien erreplika egin dute Armeria Eskolan. Ikastetxe guztietan dago baloi bat. “Proiektu hau ez da gure patrimonioa. Jabetza denona da, eta ondo legoke Ipuruan egin beharrean Untzagan egitea”, dio Mikelek. Euskararen baloia proiektua katalanek hartu dute eredu moduan.



Imanol Egidazu eta Nora Zabala.

## Klub Deportiboko bi atleta izan ziren 20 urtetik azpiko Espainiako Txapelketan

Sabadellen jokaturako atletismoko 20 urtetik azpiko Espainiako Txapelketan Nora Zabala eta Imanol Egidazu Eibarko Klub Deportiboko atletek hartu zuten parte. Zabala jauzi hirukoitzean 12. postuan sailkatu zen, 11,03ko jauziarekin. Eta Egidazu, brontzeko dominarekin bueltatu bazen ere, heptathloneko lehenengo proban min hartu eta ezin izan zituen esperotako markak lortu. Guztira 5.146 puntu lortu zituen eibartarrak honako markekin: 7,09 segundo 60 metroan, 6,39 metro luzera jauzian, 12,98 metro pisu jaurtiketan, 1,76 metro altuera jauzian, 8,12 segundo 60 metro hesietan, 4,20 metro perti-

garekin eta 2,52.67 minutu 1.000 metrotakoan.

Proba horretaz aparte, Deporrek atletek parte hartu dute beste lehiaketa batzuetan ere. Horrela, Zumarragan jokaturako Euskadiko Trail txapelketan Aitziber Urkiola hirugarrena izan zen, 23,4 kilometroko ibilbidea osatzeko 2 ordu 42 minutu eta 38 segundoko denbora eginez. Eta, Durangon jokaturako 16, 18 eta 20 urtetik azpiko Euskadiko jaurtiketa luzeen txapelketan, Enara Magunazelaiak urrezko domina bereganatu zuen 20 urtetik azpikoetan, 33,14 metroko jaurtiketarekin, aurretik zuen marka bi metroan hobetuz.

## Eibarko pilotarien arteko lehia Udaberri Txapelketaren finalista erabakitzeko

Gaur Astelenan, 20:00etan hasita, jokaturako den jaialdian jakingo dugu Klub Deportiboko zein ordezkarik jokaturako duen Udaberri txapelketako finala senior mailan. Txapelketa bikaina egin duten Narvaiza-Agrrsarobe (gerriko gorriarekin) eta Azkargorta-Conde (urdinarekin) bikoteen arteko norgehiagokak erabakiko du gaur zeinek jokaturako duen Gipuzkoako lehiaketa horren finala. Badira beste eibartar batzuk ere aurrera egin dutenak txapelketa horretan: horrela, jubeniletan, Iraolagoitiak (Ibarra ordezkatuz) eta Caramanzanak, Lasarteko bikoteari 22-12 irabazita, Azkoitikoaren aurka jokaturako dute datorren astean Udaberri Gipuzkoa Mendebaldeko txapelketako finalerdiko partidua.

Bestalde, zapatu arratsaldez Eskolarteko Txapelketako bigarren

faseko azken jardunaldia hartuko du Pilotaren Katedralak 16:30etik aurrera, bertan inguruko herrietako haur eta familia asko bilduko dituen. Debarroko pilota eskoletako benjaminak izango dira protagonista (Eibarkoekin batera, Soraluze, Bergara, Arrasate eta Oñatikoak) eta frontisean eta errebotean lehiatuko dute: "Aurtengo formatoa berria da, oso dinamikoa, zortzi tantora jokatzea, bakarka eta binaka, herri guztien artean".

Azkenik, II. Paleta Gomazko Txapelketari dagokionez, horrela daude sailkapenak: herritarren mailan, A multzoan Becana eta Sastre dira nagusi, B taldean Aboitz eta Isasi, eta C multzoan Ibarbia eta Urain; eta herriz kanpoko sailean, Etor-Agrrrebeña, Tota-Jurgi eta Zabala-Txirloi dira gaur egungo liderrak.



Goian, Agirresarobe, Narvaiza, Azkargorta eta Conde izango dira protagonista.

### Binakako txapelketa

Domekan, bestalde, profesional mailako jaialdia izango da Astelenan, partidu nagusian Altuna-Tolosa eta Peña-Mariez kurrena bikoteen artekoarekin. Aurretik P. Etxeberria-Eskuza eta Exposito-Rezusta bikoteen neurtuko dituzte indarrak.

## Futbol 7 PC mailako Eibar Espainiako txapeldun izateko itxaropenekin

Futbol maila horretan jokatzeko duen Eibar FT-k aurreko asteburuan amaitu zuen lehen fasean erakutsitakoari jarraituz, argi dago taldea borroka horretan izango dela. Fase horretan jokatuako partidu guztiak irabazi ditu, berdindu duen bakarra kenduta, eta gol gehien sartu eta gutxien jaso duen taldea izan da. Madrilen azken asteburuan jokatuako jardunaldietan, Disport-ekin husna berdintzeaz aparte, 13-0 irabazi zion Teneriferi eta 7-2 Malagari. Garun paralisia duten jokalariez osatutako gure herriko ekipoa Andoni Igartuaren lan-taldea gidatzen du eta apirilaren 21etik 23ra arte Caceresen jokatu den titularen play-offean izango da.

## Mecalbe Eibar Eskubaloiko emakumezkoek laugarrenez galdu zuten gol batengatik

Txanponaren bi aldeak ezagutu zituzten Mecalbe Eibar Eskubaloiko bi talde gorenek. Gizonezkoenak Ereintza Aguaplasten kantxan garaile irten ziren bitartean (19-23), emakumezkoek porrot krudela jasan zuten beste behin, Ipuruan Schär Colores Zaragozako taldearen kontra 19-20 galduta. Mutilen taldea laugarren postura igo da garaipenarekin, neskak azken aurreko jarraitzen duten bitartean.

Ipuruako azken neurketak amaiera tristea izan zuen berriro, aurreko jardunaldian bezala orain ere gol bakar batengatik galtzeko, laugarren aldiz gertatzen zaiena denboraldi honetan. Krudela. Azken 10 minutuetan Andoni Perezek gol batengatik irabazten sartu baziren ere, azken 2-4ko partzialak eibartarrak puntu barik laga zituen. Aragoiarren aurkako partiduan Nahia Benitez eta Irati San Mar-



tin izan ziren goleatzaile nagusiak, bakoitza lau golekkin.

Bestalde, Fernando Fernandezek mutilek bi puntu polit ekarri zituzten Errenteriatik, gol gutxi izan zituen partiduan. Lehen zatiko azken 15 minutuetan armaginen aldeko 2-9ko partzialak neurketa alde jarri zuen, eta bigarrenean aldeari eustea besterik ez zuten egin behar izan Mecalbekoek. Erasoan, gehienetan bezala, Mikel Zuloaga izan zen onena, bederatzi golekkin.

## Eibar Rugby azken play-offeko postuari eusten jarraitzen dio

Pozueloko Olympicori 7-34 gailendu zitzaion Eibarko taldea aurreko domekan jokatuako Ohorezko Mailako partiduan. Emaiz horrekin, gainera, Guntinek prestatzen

dituen neskek sailkapeneko laugarren postuari eusten diote, hau da, azken play-offetarako txartelari. Olympicok azken jardunaldietan gora egin duela erakutsi bazuen ere,

armaginak gehiago izan ziren eta neurketak euren alde egitea lortu zuten. Eibartarren lehenengo entsegua 9. minutuan heldu zen eta, asko borrokatu behar izan bazuten ere, atsedenaldirako markagailuak 0-22koa erakusten zuen. 52. minuturako Eibar Rugby Taldea 34 puntura iritsi zen, ondoren madrildarrek azken entsegua lortzeko. Eibartarren hurrengo partidua ere etxetik kanpo izango da, gaur egun sailkapeneko azkena den Complutense Cisneros taldeari egingo dion bisita. Azken garaipenak eskaintako bonus puntuarekin eibartarrek orain bi puntuko aldea ateratzen diote sailkapeneko bosgarrenari.



## Asola Berrikoek bikain hasi zuten Gipuzkoako hiru txirlo txapelketa


Aurreko zapatuan hasi zen Gipuzkoako 52. Hiru Txirlo bola-joko txapelketa, 70 bolari izan ziren parte hartzen Asola Berrin jokaturako lehen tiraldi horretan eta etxekoek, bolatokiari neurria ondo hartu diotela erakutsiz, lehenengoko postuak bereganatu zituzten. Garikoitz Rodriguez izan zen onena, zortzi txirlorekin, eta atzetik sailkatu ziren, seirekin, Alex Campos taldekidea eta San Andreseko Lander Odiaga. Eta bost txirlorekin izan ziren jarraian Asola Berriko Pedro Gomez, San Joxepeko Mikel Urkia eibartarra eta



Lasturreko Joseba Lazkano. Ganix eta Sergio Rodriguezek ere onenen artean amaitu zuten, lau txirlorekin.

Bestelako sailkapenei begiratuta ere, txapelketako lehen jardunaldian emandako eibartarren nagusitasuna erabatekoa izan da. Horrela, taldeka Asola Berri A da nagusi, 25 txirlorekin, Floreaga bigarrenari hamar txirloren alde aterata. Binaka Ganix Rodriguez eta Alex Camposek osatutako bikotea izan zen onena,

Gari eta Arkaitz Rodriguezek osatutakoa eta Pedro Gomez eta Gorka Unamunok osatutakoa hirugarren eta laugarren sailkatuz. Eta, aurrekoa gutxi balitz, emakumezkoetan Olaitz Rodriguez eta Jone Perales eibartarrak dira lehen bi postuetan, eta beteranoetan Pedro Gomez dago gorenean. Datorren zapatuan Bergarako San Joxepe bolatokiari jokaturako txapelketako bigarren jardunaldia, betiko lez, 17:00etan hasita.



Enrique Guruzeta eta Eduardo Zubiaurre.

## JAZ-ek beste hiru urtetarako berritu du Eibar Triatloi Taldea babesteko akordioa

Aste honetan sinatutako akordioarekin, JAZek 2020an Eibar Triatloi Taldearen babesle nagusi bezala hasitako bideari jarraipena ematea erabaki du, gutxienez beste hiru urterako. Ziazko eskuila metalikoak, nylon urratzaileak eta gainazalak tratatzeko erremintak 65 herrialdetan fabrikatzen eta saltzen dituen Eibarko enpresak mendeurrena ospatu du datorren urtean. Enrique Guruzeta triatloi taldeko presiden-

tearen hitzetan, "oso identifikatuta sentitzen gara herriko kirolaren aldeko apustua egiten duen enpresarekin eta harro gaude marka hori eramanez". Eduardo Zubiaurre JAZeko gerenteak, bestalde, triatloi taldearen jarduna azpimarratu zuen, "Nazio Batuen 2030 Agendako ODS-ekin eta, bereziki, ODS3 Osasuna eta Ongizatea eta ODS5 Genero berdintasunarekin dugun konpromisoaren bidean".

## Mendiko App tailerrarekin amaituko dira Mendi Jardunaldiak

Datorren asteko eguenean, hilak 22, Mikel Larreategik Deporren eskainiko duen "Mendiko App erabilgarriak" tailerrarekin amaituko dira aurtengo Mendi Jardunaldiak.

19:00etan hasiko da eta bertan aplikazio batzuk erreparatuko dituzte. Bestalde, hilaren 25ean Herri Txiki ataleko bosgarren irteera egingo dute, Betelutik Amezketa, 18

kilometroko ibilbidearekin. Interesatuak izena eman dezakete martitzen eta eguenean (19:30-20:30) edo 943201904 telefono zenbakira deitu.

# “Beti gustatu izan zait marrazkiaren eta testuaren bitartez komunikatzea”

USUE EGIA • Idazlea



Usue Egia (Durango, 1992) idazle bizkaitarraren kontaketa autobiografikoa da “Ura leporaino” eleberri grafikoa, formatu horretan argitaratu duen lehen lana. Pandemia-garaian eta ondoren Usuek bizi izandakoak jasotzen ditu, bere eguneroko sentimendu eta gogoetak, baina ez da itxialdiari buruzko liburua. Harixa Emoten ...eta kitto!-k eta Liburutegiak antolatzen duten euskarazko irakurketa-klubean izan dugu aste honetan taldeko kideekin batera liburu berezi horri mamia ateratzen.

## **Zure lehen nobela grafikoa duzu, itxialdian hasitakoa baina ez da itxialdiari buruzkoa. Zer eratako lana da?**

Itxialdian burutik pasatzen zitzaizkidan ideiak, istorioak eta hausnarketak biltzen dituen eguneroko grafiko bat dela esango nuke. Nire ikuspuntutik bizitako garai kaotiko bateko gora beherak transmititzen dituzten marrazkiz eta elkarrizketaz osatuta dago liburua.

## **Nondik sortu zitzaizun horrelako liburua egiteko ideia? Hasierako asmoa zen liburua argitaratzea ala gerora etorri zitzaizun horretarako aukera?**

Itxialdia heldu zenean bakarrik bizi nintzen eta hasierako bi aste horiek bakarrik pasatzea erabaki nuen ariketa pertsonal moduan. Sasoi arraro horri zentzua emateko eta eguneko ordu batzuk betetzeko, errutina moduan ezarri nituen egunean 4-5 ordu marraztea. Sormena lantzeko eta burua aktibo mantentzeko modu bat izan zen. Denok dakigun moduan, itxialdia bi hilabetera luzatu zen eta nik marrazten jarraitu nuen. Hirugarren astean uste dut editoreari bidali nizkiola ordura arte egindako orrialdeak eta berak animatu ninduen jarraitzera, agian, egunen batean, liburu bihur zitekeelako.

## **Nolakoa izan zen prozesua? Nola antolatu zenuen lana?**

Bigarren egunean hasi nintzen aurreko eguna kontatzen, eta horrela egiten jarraitu nuen lehenengo





hilabete osoan. Egunean 4-5 ordu esertzen nintzen momentu horretan sentitzen nuena marrazteko. Eta eguneko istorio bakoitza nire familia eta lagunei bidaltzen nien, eta istorioei jarraipen bat ematen niela konturatu nintzen. Zentzua hartzen ari zen eguneroko fantasioso eta erreal hori.

### **Eleberri autobiografikoa da. Zein gai lantzen dituzu?**

Sasoi horretan nahiko obsesionatuta nengoen autoestima eta autokontzeptuarekin, eta lantzen nituen gaietako askok sentimenduekin, emozioekin, umore aldarteekin zerikusia zuten. Egunaren arabera istorioak pertsonalagoak izan ahal dira, eta beste batzuk fantasiosoagoak. Helduaroan sartzen ari den pertsona batek izan ahal dituen krisialdiak islatzen dira.

### **Argitaratu aurretik aldaketa asko egin behar izan zenituen ala filtrorik gabeko lana izan da?**

Oso aldaketa gutxi egin ditut, izan ere, ez dut ezer ezabatu. Ez testu ez marrazki. Lehenengo egunetik hartu nuen idazteko eta marrazteko dinamika jarraitu nuen. Marrazketan pentsamendua eta eskua aldi berean izatea lortu nuen. Momentuan nire helburua pertsonala zen; niretzat egiten nuen ariketa bat hain zuzen ere; beraz, ez neukan beharra testua edo marrazkia aldatzeko. Ez nuen marrazkian perfekzioa bilatzen. Libre sentitzen nintzen eta horrela ikusten nuen emaitza, eskuhartzea ez zela beharrezkoa, eguneroko batean normalean zuzenketarik ez duzulako egiten, pasatu dena pasatu delako.

### **Bakarrik pasa zenuen itxialdia, baina kuadrilla ederra osatu duzu liburuan: Chavela Vargas, Virginia Woolf, Henry Purcell...**

Bai, beti gustatu zait imajinatzea eta entzuten nuen musika erabili nuen artista horiei pertsonalitate bat emateko eta nire etxera gonbidatzeko. Eguneroko errealari fantasia eta fikzioa sartzeko erabili nituen pertsonaia horiek. Eurekin gai desberdinen inguruan hitz egiteko aukera eman zidan errekurtsio narratibo horrek.

### **Idazlea izateaz gain marrazkilaria ere bazara. Bi adierazpen-moduak lantzen dituzu lan bakarrean...**

Beti gustatu izan zait marrazkiaren eta testuaren bitartez komunikatzea eta formatu horretan oso eroso sentitu izan naiz. Pentsatzeko eta nire hausnarketak folioan irudikatzeak aukera ematen didan modua da. Biñeta gabeko narrazioa irudien eta letren bitartez dago zuzenduta irakurketa.

### **"Ura leporaino" da liburuaren izenburua. Nondik dator titulu hori, zer esan nahi izan duzu?**

Portada eta izenburuarekin joku bat egitea nahi nuen; dutxa ataskatuta dagoenean ura orkatiletaraino hel-



## **"Liburua frustrazioz eta gorabeheraz betetako sasoi bateko egunerokoa izanda, ura leporaino izan dudala sentitu izan dut"**

tzen dela ikusten da, baina leporaino dagoela sentitzen dugu batzuetan. Liburua frustrazioz eta gorabeheraz betetako sasoi bateko egunerokoa izanda, ura leporaino izan dudala sentitu izan dut, baina arazo horiek benetan ez ziren hainbesterako, nahiz eta horrela sentitu. Liburu honek libragailu moduan balio izan didala uste dut.

### **Horrelako formatuak ez dira oso ohikoak, eta literatura tertulietan ere ez gaude oso ohituak horrelakoak irakurtzera. Nolako harrera izan du?**

Irakurleekin hitz egiteko izan ditudan aukerak aprobetxatu ditut hori galdetzeko. Horren inguruan jaso ditudan iritziak oso positiboak izan dira. Irakurtzeko erraza dela esan didate eta oso arin irakurtzen dela, batzuetan horretaz konturatu eta atzera egin behar izan dutela marrazkian gehiago fijaszeko.

### **Zer darabilzu esku artean? Proiektu berririk?**

Pandemia mundua geratzeko aukera paregabea izan zen eta horri esker izan nuen denbora liburu hau idazteko. Orain dena berriro bere erritmora itzuli denez, zailagoa egiten zait guztiz lan kreatibo batean sartzea, baina proiektu txiki batzuk baditut, bai. Horrez gain, orain asko disfrutatzen ari naizen komiki- eta sormen-tailerren eremuan sartzeko aukera izan dut.

**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

7		4		1	2	
2	6		7			3
			5		7	8
				8	9	
8			7			5
	1	4				
4	2		6			
9		2		3		4
	6	1		4		9

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z																													
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55

soluzioa

**S U D O K U**

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

	8		4		7	
	5				4	6
		7	8		9	3
		1	5			
	2			9		5
				8	6	
1	8			2	3	
9	3					6
	6		7			1

soluzioa

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z																													
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55

Zatika emandako erantzunak osatu ahala, eraman itzazu letra zenbakidunak beheko taulara -adibidean bezalata Paskual Iturriagaren alegi baten zatia aurkituko duzu.

Arroka

1	A	2	3	4	A
E	5	6	R	7	U
U	N	T	8	9	A
A	10	11	12	13	A
Z	14	R	15	E	16
A	17	18	I	D	E
S	A	19	20	21	22
23	E	Z	24	25	A
B	E	26	I	27	28
Z	29	30	A	T	31

Eskoba hegalariaen jabe

Zikoitza, esku-eutsia

Toki batetik bestera aldatu

Ehun urtekoa

Mahats-zuku irakin gabea

Salmentako partaide

Hondakin

Aintzira bokia

Adar-gai

Diru-etxea

S	O	32	G	33	N	
Z	E	34	K	35	N	A
M	U	37	38	39	U	
M	40	41	42	E	A	
M	43	Z	44	I	O	
B	45	Z	E	R	46	
H	O	47	D	48	R	
U	R	49	A	50	L	
A	51	A	R	K	52	
B	A	N	53	54	55	

Urria eta berendiaren laguna

Toreroaren etsaia

Basa-behi

Zahagi bokia

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29				
30	31	32	33	E	K	36	E	37	38	39	40	41	42	43	44	45
46	47	48	49	50	51	52	53	54	55							



Egitarau osoa  
deskargatzeko:



### **martxoak 18 (zapatua)**



#### **"Hobe ixilik!"**

Txalo Produksioak (Gipuzkoa)  
*Salomé Lelouch*  
Komedia / 80'

**Antzezleak:** ITZIAR ITUÑO,  
RAMON AGIRRE

**Zuzendaria:** BEGOÑA BILBAO

Eikari kontu-kontari eta, aldi berean, kontrakoa esaten. Egun, edozer esanda ere, eztabaldarako gai bihurtzen baita. Areago, ustez adierazpen askatasuna nagusi den guneetan, dagoeneko zenbait gauza ezin dira aipatu ere egin.

**Coliseo (19:00)**

### **martxoak 21 (martitzena)**



#### **"Rey desnudo & Chico muerto"**

P & Gazte Konpainia (Bizkaia)  
*Iñigo Cobo*

Tragikomedia / 100'

**Antzezleak:** ARNATZ PUERTAS,  
ITXASO GIL, SARA BARROETA

**Zuzendaria:** IÑIGO COBO

58 segundotan gertatzen den istorioa da. Bilboko parke batean, 2016ko ekaineko gau batean, ordu bikitan, bi lagun bi begirada jasotzen ditu, bideo birala bihurtuz. Hainbat erabaki batuko dira Big Bang batean, etorkizuna ere erakutsiz.

**Coliseo (19:00)**

### **martxoak 22 (eguztzena)**



#### **"La lengua de las mariposas"**

Sarabela Teatro (Ourense)  
*Manuel Rivas*

Tragikomedia / 70'

**Antzezleak:** ELENA SELLO,  
JOSITO PORTO, FRAN LAREU

**Zuzendaria:** FERNANDO DACOSTA

Protagonistak ezezagunaren aurrean sentitzen duen ilurak eta giza askatasunen errepresioak eragindako sufrimenduak denboran hain urrun ez dagoen errealitateara hurbilduko gaituzte, gaur garenarekin lotuz, eszenaratze delikatuarekin.

**Coliseo (19:00)**

### **martxoak 23 (eguzia)**



#### **"Es mi palabra contra la mía"**

*Luis Piedrahita*  
Bakarriketa / 80'

**Antzezlea eta zuzendaria:**  
LUIS PIEDRAHITA

Egilearen azken ikuskizuna. Egunerokotasuneko eta "gauza bikien" inguruko bere umoreaz, arin aztertzen du zergatik inor ez dagoen pozik tokatu zaionarekin. Azaleko gogoeta sakonekin batera, inprobisazioak ere badira, arretaz emateak.

**Coliseo (19:00)**



## Robotika arloko bi tailer antolatu dira Aste Santurako

Udalak tailer teknologikoak antolatu ditu Aste Santurako eta aurrematrikula martxoaren 24ra arte egin daiteke. Tailerrak Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailetako ikasleentzat eta DBH-ko 1. eta 2. mailetako ikasleentzat izango dira. Bi tailer izango dira: “Pakete sailkatzea” (LH 3. eta 4. mailetakoentzat) eta “Bideojolasak programatu” (LH 5. eta 6. eta DBH 1. eta 2. mailakoentzat), eta biak Indianokua gaztelekuan emango dituzte. Aurrematrikula egiteko. Udalaren webgunean dagoen formularioa bete beharko da eta informazio gehiago ere bertan aurkituko duzue edo, bestela, 943 708 435 telefonora deitu daiteke.



## Helduen Eskolako ikasleekin aritu zen berbetan Jon Maia

Eibarko Helduen Eskolak (EPA) antolatutako saioan, Jon Maia Soriak Extremaduratik euskarara berak egindako ibilbidea azaldu zuen martitzenean, Armeria Eskolako aretoan emandako hitzaldian. Bertsolari eta idazlearen berbetan, “Eibarko Helduen Eskolako ikasleekin izan dudana solasaldiak bereziki hunkitu nau. Zenbat jatorri nire aurrean, zenbat ahalegin bitzitza berri bat eraikitzeko... Aurreko migranteekin bezala, zuen seme-alabak izan daitezela biharko bertsolariak, euskal idazleak, abeslariak...”.



## Hitzen nahaste-borrastea: hasi da bigarren zatia

Eibarko Euskara zerbitzuak herriko bi euskaltegiekin elkarlanean antolatutako Hitzen nahaste-borrastea lehiaketaren bigarren zatia hasi da: lehiakideek bidali dituzten mezu nahasi guztiak [www.eibarko-euskara](http://www.eibarko-euskara) helbidera igo dituzte eta orain herritarrei dagokie parte hartzea, mezu horiek zuzenduta. Helbide horretan aurkituko duzuen hitzen nahaste-borraste taula deskargatu eta, nahastutako hitzak ordenatu ondoren, mezuak zuzen jartzen joan behar da. Amaitzean, erantzun zuzenekin osatutako taula euskara@eibar.eus helbidera bidali behar da, apirilaren 2a baino lehen. Mezu gehien zuzen ematen dituenak irabaziko du lehiaketa. Saria Coliseorako emanaldietarako sarrerak eta Armagintzaren Museorako sarrerak izango dira.



## Ekofeminismoari buruzko hitzaldi-eztabaida

Eguaztenean, 19:00etan, “Aginte korporatiboaren aurkako ekofeminismoaren gidaliburua” izenburuko hitzaldi-eztabaida egingo da Portalean (gaztele-raz). Hizlaria Julia Marti Comas, Garapenari buruzko Ikasketetan doktorea EHU-n eta Euskal Herriko mugimendu feministako militantea izango da. Saioa “Bizia zaintzen. Basoa. Biodibertsitatea. Bizitza” erakusketaren harira antolatu da.



## William Jacobs & Marcos Coll Blues Band domekako Portalea Musika Klubean

Aurtengo lehen hiruhilekoa ixteko kontzertu berezia izango da Eibarko Portalea Musika Klubeko hilabete honetako ekitaldian. Domekan 19:00etan kontzertua eskainiko duen taldea William Jacobs & Marcos Coll Blues Band izango da, Berlinen bizi diren William Jacobs musikari iparramerikarra eta Marcos Coll musikari galiziarren eskutik, eta taldekide bereziet lagunduta: Javier Vacas (Los Coronas, Sex Museum, Corizonas...) eta Antonio Alvarez "Pax" (Los Reyes del KO, La Vaca Azul...) tartean. Europako jokalekuetan hutsezineko bi izenok beren sormenak emandako kantuz osaturiko errepertorioa aurkeztuko dute oraingoan. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



## Eibarko Artisten Elkartek lokala berritu du

Pagaegi kalean dagoen Eibarko Artisten Elkartearen lokalak barixakuan zabaldu zituen ateak, elkartearen egoitza konpontzeko lanak egin eta gero. Besteak beste elektrizitatea, berogailuak eta lurra konpondu dituzte eta Udalak ordaindu ditu hobekuntzak, 41.700 euro inguru, lokala berea delako.



## Lorena Ramirez korrikalari mexikarrari buruzko saioa

Astlehenean, 18:30ean, Emakumeen Istoriaok zikloko bideo-forum saioa egingo da Portalean (areto nagusian), Pagatxa emakume elkarteak Udaleko Berdintasun Zerbitzuarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean antolatuta. Patricia Perex Cotok dinamizatuko duen saioan tarahumara edo rarámuri etniako Lorena Ramirez Hernandez korrikalari mexikarra ezagutzeko aukera izango da. Beti bezala, jarduera irekia eta doakoa izango da.

## Alberto Alberdiren omenezko txistu-kontzertua domekan

Domekan, 12:45ean, Usartza Txistulari Taldeak kontzertua emango du Untzagan, udaletxeko arkupeetan, otsailaren 1ean, 90 urte zituela zendu zen Alberto Alberdi taldekide ohiaren omenez. Emanaldirako prestatu duten egitaraua honakoa da: "Ecos Guipuzcoanos nº 1" (J. Harina, Arm: J.Mª G. Bastida), "Bilbaineskak (Viva S. Joaquin)" (J.C. Arriaga), "Barrencalle" (Rapsodia, Luis Aranburu), "Otzoal" (Minueto, M. de Oñate), "Txistu Sonua (Alborada vasca)" (G. Butron), "Pello Joxepe (po-pourri de Aires Vascos)" (G. Butron) eta "Mendiko Soinuak" (J. Guridi). Alberto Alberdi Agirre 1955. urte inguruan hasi zen atabala/danborra jotzen, aurretik aitak eta aitxitzak egin zuten bezala. Bere aita Pedro "Maria Ospitxal" pregoilari ezaguna izan zen eta, hura jubilatu zenean, semea Udaltxistulari Bandako kide izatera pasatu zen, 60. hamarkadan. Orduz geroztik, bizitza osoa eman zuen txistulariekin batera, danborra jotzen, eta taldean asko maite zuten.



## Bittori Orrantia Gonzalez

2023/03/06



ESKERRIK ASKO  
une latz hauetan gurekin  
egon zareten lagun eta  
familiako guztioi.

- ETXEKOAK -



## Izaskun Aranzabal Eguizabal

2023/03/10

ESKERRIK ASKO  
gure atsekabeen  
lagundu diguzuen  
guztioi.

- ETXEKOAK -



## Ramon Torrella Vildosola

1. URTEURRENA (2022/03/19)

Ez zaitut sekula beldurrari  
horren ausart begiratzen ikusi,  
maikoak dantzengatik aldatzen.

Bai, maizia, indartsuenaren  
sakrifizioa eduki ahal da,  
eta ez litzateke inoiz buruan  
daukazun boterearen laurdena  
izatera ailegatuko.

Bihotza, nire heroia izango  
zara betiko, eta zu ezagutu  
izana bedeinkatzen dut.

- ALICIA ZURE EMATZEA -



## Pedro Mari Atxa Arrizabalaga

2. URTEURRENA  
2021/03/13

*"Hitz gutxiako pertsona izan arren  
BIHOTZ HANDIKO GIZONA  
bizitzako azken momenturarte  
GOGOR EUTSI IZAN DIONA  
hemen gauden pertsona bakoitzak  
ESKERTZEKO DIOGUNA  
gu guztion bihotzean zaude  
MAITE ZAITUGU, AITONA"*



## Iñaxio Zubeldia Arrieta

3. URTEURRENA  
2020/03/14

*"Hiru urte joan  
diren arren aparte,  
Ze hutsune, ze tarte,  
Zuri, Iñaxio,  
beste bat arte"*

- ZURE FAMILIA -



●●●  
**FUNEUSKADI**  
Funeraria

●●●  
**FUNERARIA MUGICA**  
Funeraria

●●●  
**TANATORIO EIBAR**

●●●  
**TANATORIO KERMATZU**  
LEZORRIAS

**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951**  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xabilion, s/n. SIGMA Industriaidea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

# Martxoak 17/23

## BARIXAKUA 17

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "El avaro" (Atalaya Teatro). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

## ZAPATUA 18

### AZOKA

**10:00/14:30** Lore, Landare eta Zuhaitzen Azoka.

**11:30 eta 12:30** Tailerrak, umeentzat. Urkizu.



### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "Hobe Ixilik" (Txalo Produzioak). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

## DOMEKA 19

### MUSIKA

**12:45** Usartza Txistulari Taldearen kontzertua, Alberto Alberdi txistulari izandakoaren omenez. Udaletxeko arkupeak.



### MUSIKA

**19:00** William Jacobs & Marcos Coll Blues Band (Portalea Musika Kluba). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Portalea.



## ASTELEHENA 20

### BIDEO-FORUMA

**18:30/20:00** Emakumeen Istorioak: Lorena Ramirez Hernandez. Dinamizatzailea: Patricia Perex. Pagatxak antolatuta. Jarduera irekia eta doakoa. Portalea (areto nagusia).



## MARTITZENA 21

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "Rey desnudo & chico muerto" (P6 Gazte Konpainia). 5 euro. Coliseo.

### BATZAR NAGUSIA

**19:30** ...eta kitto! Euskara Elkartearen Urteko Batzar Nagusia (lehen deialdia 19:00etan). Elkartearen egoitza (Urkizu 11, solairuartea).

## EGUAZTENA 22

### HITZALDIA

**19:00** "Mendiko App erabilgarriak", Mikel Larreategiren eskutik. Euskaraz eta doan. Klub Deportiboa.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "La lengua de las mariposas" (Sarabela Teatro). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

## EGUENA 23

### HITZALDIA

**10:00/12:00** "Hirigintza eta hiri-berroneratzea", Pilar Gonzalo hirigintzan espezializatutako abokatuaren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola.

### ODOL-EMATEA

**16:50/20:50** Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

### MOBILIZAZIOA

**18:00** Osasun Publikoaren alde. Toribio Etxebarriako ambulatorio aurrean.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "Es mi palabra contra la mía" (Luis Piedrahita). 15 euro (10,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

### HITZALDI-EZTABAIDA

**16:50/20:50** "Aginte korporatiboaren aurkako ekofeminismoaren gidaliburua". Hizlaria: Julia Marti Comas (Feminista eta Politika Zientzietan dokorea UPV/EHU). Gaztelera. Portalea.

## ERAKUSKETAK

**Martxoaren 17ra arte:** - "ITSASPEKO BIHOTZAK" erakusketa didaktikoa Eibarren. (Errebal Plazia).

**Martxoaren 19ra arte:** - "FILMETAKO ARMAK. MUSEOAREN BILDUMA ZINEMAN". (Museoa).

**Martxoaren 26ra arte:** - "BIZIA ZAINTZEN - BASOIA. BIODIBERTSITATEA. BIZITZA". (Portalea). - "LARANJEN ARTEAN" (Saioa Burutaran) eta "URTAROAK" (Maite Rosende). (Portalea).

**Martxoaren 31ra arte:** - "EIBARKO SOZIALISTEN 125 URTEAK". (Herriaren Etxea).

## Eskualdeko Agenda

### ELGOIBAR

**17an (BARIXAKUA) KONTZERTUA**  
**17:00 eta 19:00 / Herriko Antzokia**  
"Goazen 9.0"

### ERMUA

**17an (BARIXAKUA) ANTZERKIA**  
**20:30 / Ermua Antzokia**  
"Hoy puede ser mi gran noche"

## ZINEA COLISEO

### 1 ARETOA

- **18an:** 22:30
- **19an:** 20:00
- **20an:** 19:30

**"Almas en pena..."**  
KOMEDIA BELTZA



2022/Erresuma Batua/114'  
Zuzendaria: Martin McDonagh  
Aktoreak: Colin Farrell,  
Brendan Gleeson, Kerry Condon  
**Drama/Lagunartekoa**

### 2 ARETOA

- **18an:** 19:45, 22:30
- **19an:** 17:00, 20:00
- **20an:** 19:30

**"Asuntos familiares"**  
DRAMA



2022/Frantzia/108'  
Zuzendaria: Arnaud Desplechin  
Aktoreak: Marion Cotillard,  
Melvil Poupaud, Patrick Timsit  
**Anai-arreban elkartzea**

### ANTZOKIA

- **18an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **19an:** 17:00 (1 Aret.), 20:00
- **20an:** 19:30

**"Mari(dos)"**  
KOMEDIA



2023/Espainia/102'  
Zuzendaria: Lucia Alemany  
Aktoreak: Paco León, Ernesto  
Alterio, Celia Freijeiro  
**Bizitza paraleloak**

### ANTZOKIA

- **18an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **19an:** 17:00

**"Los demonios de barro"**  
ANIMAZIOA



2022/Portugal/84'  
Zuzendaria: Nuno Beato  
**Drama/Stop Motion**

**Izadi**  
**LORADENDA**  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE  
NATURAL ETA  
LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK  
*Enkarguak etxera*

**ek!**

Zure publizitatea  
herriko aldizkarian  
**688 621 535**  
publizitatea@etakitto.eus



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eu



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MARCO!!!** Bixar 6 urte beteko dozuz-eta!!!! Musu haundi-haundi bat etxeko guztion partez!



Zorionak, **PELLO!!!** 11 urte bete dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, amatxo, aitatxo, Nile eta Polen partez.



Zorionak, **IRAIA**, gaur 11 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **KARMELE**, 5 urte bete dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **ELENE**, poxpolin, eguaztenian 9 urte bete zenduaz-eta. Musu erraldoi bat famelixaren partez.



Zorionak, **OIER!** Bixar urtetxua beteko dozu-eta. Patxo haundi-haundi bat famelixa guztiaren partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak, **AMAIA**. Atzo 9 urte egin zenduaz-eta. Musu pillua etxekuen partez.



Zorionak, **MARTIN**, hillaren 23an 6 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **MARTIN!** Bixar 8 urte beteko dozuz-eta! Besarkada bat famelixako danon eta, batez be, Hinasen partez. Aupa, Martin!



• tartak  
• enkarguak  
• etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

Urtzi Antxustegi (688 649 837)

09:30 – 19:00

EROSKI-n **garbibox**  
auto-garbitaketak  
Bergale 1.0 - vertikaletan

**ZERBITZU BERRIAK:** sabai edo tetxu-konponketak, tapizatu-konponketak, etxeko garbiketarak une zehatzetan...

# Iragarki laburrak



688 62 76 89  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Eteak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Etxebizitza alokagai Deban uda eta udaberri sasoiari (hila-beteka edo asteka). 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi eder. Bista paregabeak. Igoailua 0 kotatik. 657795876 (arratsalde).

### 1.2. Errentan

- Pisu txikia alokagai Eibarren. 2 logela. Igoailurik gabe. 500 euro. 627794822 / 687078777 (Whasappez edo arratsalde).
- Pisu konpartituko nuke edo logela bat hartuko. 646131301.

- Pisu hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2-3 logelakoa. 631907807.
- Pisu hartuko nuke alokairuan. 2 logelakoa. 652532589.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. 688489881.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ikastaro sozio-sanitarioarekin) eta garbiketarako egiteko. 643398596.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientzia handia. 655094780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazio ziurtagiriarekin). 602490595.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. 692197497.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 677328674.
- Neska eskaintzen da ileapaintzaile bezala. Esperientzia automatikajean. Baita beste edozein lanetarako ere. Externa. 602105368.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsalde nagusiak edo gaixoak zaintzeko. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, kamarera edo saltzaile eta bulegoak garbitzeko. 631102067.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 641456656.
- Emakumea eskaintzen da pisuak eta obren amaierak garbitzeko. 638421827.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 631768713.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (agiri sozio-sanitarioarekin) eta garbiketarako egiteko. 631125127.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 643374471.
- Emakumea eskaintzen da gauez eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. 632950201.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta gauez ere. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. 640881328.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 631687276.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632794799.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624127122.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624127087.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak (agiriarekin). Autoarekin. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 631907807.

### 4.2. Langile bila

- kamarera/o behar da pintxo taberna baterako. 661955980.
- Emakumea behar da goizez bi ume txiki zaintzeko. 633647568.

- Neska euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 699024156.
- Ileapaintzailea behar da jor-nada osorako. 619928881.
- Emakumea behar da Eibarko denda batean. Jornada erdiz, arratsalde, martitzenetik zapatara. Bidali curriculum: eibartienda@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- 1'50eko ohea eta 0'50eko bi mesilla salgai. Baita bainugelako altzarria eta lababoa (0'62x0'47), ispilu eta aplikuekin. Egoera onean. 683560258.
- Egonela-jangelako kristalezko mahai handia eta egur-koloreko eskritorioa salgai. Ia berriak. Prezio interesgarria. 606882043.

### 6.2. Eman

- Hiru pertsiana laminadun (1'60ko luzerakoak) oparitzen dira. 656732584.



# osasun gida

## Okulistak

 **Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klínika

• Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

R.P.S. 20413


Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com



## Podologoak

**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**

838200124  
kolegiatu zenbakia.



T. Etxebarria, 5 - 1. A  
943 12 14 93 / 696 555 208

## Psikologoak



**IRIGO UMANUE ARTECHE**  
www.irigoumanue.com

- Merkataritzako Taldeetako Aholkulari Sistemakoa
- Gestalt Terapeuta / Coach Ontologikoa
- Eskazio Orientatzailea

Unib. Pasaia, 7  
472 682 133  
info@irigoumanue.com

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

 Oscar Mondragon Lili  
GOZIEZ ETA ARBASALDIEZ  
Urkizu, 13 - behealdea  
tel. 943206823 / 686859023



BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (122 Kolegiatu zbkia.)  
Rosario Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagöia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)


 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
www.arratepsicoterapia.com

**PODOLOGOA**

**Maidor Lopez Etxebarria**



Arragueta 2 Bis-B, Behea B  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



943-206776

# EDERTASUNA ZABALDU



Gipuzkoa poesiaz bete nahi dugu eta zurekin kontaktzen dugu hori lortzeko.

**MARTXOAREN 15etik 21era**

Partekatu edertasuna zure sare sozialetan eta berehalako mezularitzako aplikazioetan: poesia, argazkiak, poema irakurketak, bideo sortaileak... Irudimena da muga.

#EdertasunaZabaldu #PoesiarenEguna

Poesiaren  
Eguna

Martxoak 21

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Lanbidea, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA  
ORAIN



@GipuzkoaKultura